Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

235 zenbakia
2022 **maiatza**

Prest!



BERBETAN: **NIKO CUENCA BERISTAIN** ENPRESA BIDEA EGUNKARIKO KOORDINATZAILEA

ERREPORTAJEA: **ZORIONAK TXANTXIKU!** BARKUA: **BADATOZ IBARREKOLANDAKO JAIAK!**

TOKIKOM

31-232-233-234-235











Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

Karrantxo Taldea Deustu

Deustuko Ikastola

Deustuko Jai Batzordea

Bihotz Alai Folklore Dantza Taldea

Deustuko Gazte Lokala

Elorri Bertso Eskola

eaj pnv deustu

S.D. Deusto

ehbildu

Zirikatzen!

Deustuko Gazte Asanblada

Egunsentia Eskaut Taldea 1923tik

ernai Deustua

Pare Hautsi Patriarkatua

Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

235 zenbakia
2022ko maiatza

aurkibidea

Atxarte Salvador Navarro - Angel Prieto Fidalgo — **Iritzia** — 4

Benina Bolla Abba — **Gurera etorriak** — 5

e erreportajea
Zorionak Txantxiku!

Bi hamarkada baino zerbait gehiago igaro dira gazte batzuek Berbaizu Euskara Elkartearen babesarekin Txantxiku Aisialdi Taldea sortu zutela. 20 urte hauetan ez du lan makala egin Txantxikuk deustuko umeen euskalduntze prozesuan eta hori dela eta doakio lerro hauetan merezitako omenaldia. — 6

Deustuko Ikastola — **Eskolak** — 10

Deustua 1924ko plano batean — **Behin batean** — 12

Ez Columbus, ez Mao Mao Beach, ezta Premiere ere — **Artikulua** — 14

b berbetan
NIKO CUENCA BERISTAINekin

Ekonomian espezializatutako euskarazko komunikabide digital berria jaio da: Enpresa Bidea. Niko Cuenca analista ekonomikoak koordinatzaile gisa dihardu, eta proiektuaren nondik norakoak zein gaurkotasunari lotutako hainbat gako azaldu ditu. — 16

Alejandro 3 zamaontziaren uretaratzea (1940) — **Irudiak berbetan** — 21

KOMIKIGINTZA Zeladore banpiro baten gorabeherak

JAIAK Badatoz Ibarrekolandako jaiak!

NUTRIZIOA Udako bikini operazioa ebazten

KULTUR TXOTX Dafne Gonzalez Villar eta Elena Kashlinova

barkua bete herba — 24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01



Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

EDAN!

Marianito batzuk? Poteo? Kinito? Trago batzuk hartzeko geratu gara. Litro batzuk egingo ditugu, botiloia. Afaldu eta kubateo. Bazkaldu baino lehen, ardo pare bat. Goazen txosnetara. Tabernetan gaude. Manifa eta gero pote batzuk. Bilera eta gero kaña batzuk, bertan mundua konpontzen jarraituko dugu. Zer nahi duzu? Ezer ere ez? Ez duzu edaten? Zergatik ez? Baina hartu zerbait, ardotxo bat behintzat. Garagardoa? Zurito bat sikiera. Ez? Nolatan hori? Seguru? Orduan, zer egingo duzu? Zertara etorri zara? Zerbait nahi izango duzu, hartu, edan. Baina ez duzu inoiz edaten? Zer duzu? Ez zaizu gustatzen? Txarto al zaude? Zelako pena, ze txepela! Ze arraroa zaren! Erotuta zaude. Ez fidatu inoiz edaten ez duen norbaitekin. Halako jakiekin ardoa behar da. Txuletarekin, sagardoa ere bai; okelak ardo beltza behar du; arrainak, zuria; gaztak eta urdaiazpikoak, ardoa…

Nola jango duzu, bada, urarekin?! Sakrilegio! Umekeriak! Ospatu! Gora kopak! Um blem ble! Altxa kopa hori! Gora, behera, erdira eta barrura! Osasuna! Baina zertan zabiltza txin-txin egiten urarekin? Kendu hortik, kriston zorte txarra dakar horrek eta! Ze ondo atzo! Zelako atxurra, gogoangarria! Zelako barreak egin genituen, itzela zara mozkortuta! Ligatzeko onena, garagardo batzuk hartzea. Ardo apur bat ona da osasunerako, baita arimarako ere. Urduri zaude? Ardoa. Triste zabiltza? Patxarana. Estututa? Txupito. Sekulako betekada daukazu? Gintonic edo belar-likorea. Zelako ajea! Trago batekin pasatzen da hori. Hotza? Likorea. Egarri? Garagardoa. Beharra amaituta, trago bat. Deskonektatzeko, mozkortu. Bazoaz? Ez da izango! Hartu espuela. Nola ezetz? Baina hemen duzu eta, atera egin dizut. Edan!

Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria



Autoek Arangoiti inbaditu dute

Joan den hileko iritzi-artikuluan askok geneukan susmoa plazaratu nuen eta denborak arrazoia eman dit, maiatzean ez dago inon aparkatzerik Arangoitin. TAO zerbitzua San Inazion eta Ibarrekolandan martxan jarri zenetik, Arangoitiko auzokideok orduak eman behar izaten ditugu aurrera eta atzera autoa uzteko toki baten bila eta askotan gaizki aparkatuta utzi beste aukerarik ez dugu izaten. Izan ere, 140 bat auto egoten dira legez kanpo aparkaturik. Arazo larria dugu auzoan eta irtenbidea bilatu beharra dugu.

TAO ezartzea aukerarik gogokoena ez bada ere, epe laburrean eraginkorrena omen da. Beraz, neurri hori auzoan jarri ala ez jarri erabaki beharrean gaude auzotarrok. Horretarako Bihotzaran auzo elkarteak herritarrenprozesu parte-hartzaile bat jarriko du martxan. Maiatzaren 26an arratsaldeko zortzietan eztabaida publikoa egingo dugu "LaZonan", auzotarren iritzia ezagutzeko eta ekainaren 4an herri bozketa Egileor plazan. Emaitzak zehaztuko du auzokideen elkarteak zein jarrera defendatu behar duen.



Benina Bolla Abba

Jatorria: Mendebaldeko Sahara
Bizitokia: Arangoiti
Lanak: Sukaldaria eta Erizaintzako laguntzaile

Testua: Pablo Martinez Canibe

“Herrietako jaiak asko gustatzen zaizkit. Hemengo kultura hobeto ezagutzeko aukera ematen didate”.

Duela 11 urte etorri zen Benina Bolla Abba Mendebaldeko Saharatik. Bere ametsa Erizaintzako laguntzaile bezala lan egitea zen eta azkenean lortu zuen. Bilboko jendea, hizkuntza, kultura eta hiriko bizitzarekin gustura dagoen arren, egunero amesten du Saharara bueltatzearekin.

Zergatik joan zinen Saharatik?

Haurdunaldi-arriskuagatik etorri nintzen Tinduf (Aljeria) errefuxiatu gunetik. Duela hamaika urte etorri nintzen eta hamabi urte beteko dira uztailean etorri nintzenetik.

Bilbora heldu zinen zuzenean?

Ez. Bilbora iritsi aurretik Oviedon egon nintzen. Bisa luzea izan nuen haurdunaldiko tratamenduagatik erditu nuen arte. Sei zazpi hilabete inguru eman nituen Oviedon eta semea erditu ostean honek bost hilabete zituenean, Arangoitira etorri ginen.

Zer da Bilbotik gehien gustuko duzuna?

Herrietako jaiak asko gustatzen zaizkit. Hemengo kultura hobeto ezagutzeko aukera ematen dit. Hemengo jendea ere asko gustatzen zait. Bestalde, hirian, denetarik dago. Luxu bat da, noski.

Zertan egin duzu lan?

Heldu nintzenetik ikastaroak egiten egon naiz. Ez diot inoiz nire ametsen alde borrokatzeari utzi. Erizaintzako laguntzaile eta sukaldari lanetan aritu naiz; denetarik egin dut. Ahal izan dudan guztia prestatu dut neure burua nire ametsen alde borrokatzeko. Eta lortu dut.

Saharara bueltatzea pentsatu duzu inoiz?

Egunero pentsatzen dut horretan. Ni astero bueltatuko nintzateke baina zoritxarrez oso zaila da, eta are gehiago haurrekin.

Euskara ikasteko aukera izan duzu?

Hemen ditudan lagun batzuekin hitz egiten saiatzen naiz, baina oso gutxi dakit. Nire seme-alabekin hitz egitea gustatuko litzaidake. Ikasteko plaza eskatu dut, baina oraindik ez didate deitu. Hala eta guztiz ere esaten dizkidaten gauza asko ulertzen ditut.

Arazoren bat izan duzu zure jatorriagatik?

Inoiz haurraren gurditxoarekin autobusetik jaistera nindoala atea itxi didate aurrez aurre, eta horrelako uneetan amorru handia sentitu dut. Mhelfa kentzea ere asko kostatu zait. Kaletik lasai joatea gustuko dut.

Lanean eraginik izan du?

Lanean ez dit inoiz eragin. Lan elkarrizketetan egia da, noizbaiten nire jatorriari erreparatu diotela, baina ezin naiz kexatu nire inguruko jendearekin konparatuz. Ez da bidezkoa ezagutu gabe gu epaitzea, garrantzitsuena curriculuma baita.

Zein nazionalitate daukazu?

Saharar gisa akreditatzen nauen agiri bat daukat, Aljeriak ez gaituelako bere lurraldean errefuxiatu gisa onartzen. Ez dagokit ez adina, ez izena, ez abizena. Ondo daukadan bakarra bigarren abizena eta jaioteguna dira. Nire gurasoek eta aitona-amonek egin duten bezala nire kabuz konpondu naiz.

Zer suposatu zuen Espainiak Sahara Marokoko erkidego bat izendatzeak?

Niretzat ikaragarria izan zen. Guk geure kabuz erabaki nahi dugu. Aski da. Saldu, abandonatu eta edozer gauza bagina bezala erabiltzen gaituzte. Lotsagarria iruditzen zait, baina azkeneraino borrokatuko dugu.



20 URTEZ EUSKARA AURRERA ERAMATEKO PREST. ZORIONAK TXANTXIKU!

Bi hamarkada baino zerbait gehiago igaro dira gazte batzuek Berbaizu Euskara Elkartearen babesarekin Txantxiku Aisialdi Taldea sortu zutela. 20 urte hauetan ez du lan makala egin Txantxikuk deustuko umeen euskalduntze prozesuan eta hori dela eta doakio lerro hauetan merezitako omenaldia.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Irudiak:** Txantxiku Aisialdi Taldea

Gogoan dut eskola garaian, irakasleek ikasleen artean txapelketak antolatzen zituztela euskararen erabilera areagotzeko. Atsedenaldian euskaraz jolastu zara? Borobil berdea itsatsi dezakezu hizkuntzaren erabilera adierazten duen asteko taulan. Atsedenalditik gelara bueltan ordea, gaztelaniaz hitz egin duzu? Borobil berdea lortu ez, eta horren ordez, gorria itsastea dagokizu. Irakasleak aurrean ez zeudenean ere euskaraz hitz egin genezan, euskararen zaindari zen Argitxo gu entzuten zebilenaren ziria sartzen ziguten. Olatz Zabaletak, Tafallako euskara teknikariak, argi zioen 2007. urtean ARGIA astekarian: "euskararen irudia ezin da pertsona haserretu baten irudia izan, ezin dugu "hitz egin euskaraz!" bezalako agindu errepikakorrekin euskararen erabilera sustatuko dugula pentsatu".

Nola lortu orduan inguru ez-euskalduna duten umeek eskolatik kanpo ere euskaraz mintzatzea eta aldi berean, gure hizkuntzak duen balioaz jabetzea? Horren erantzuna da Txantxiku. Izan ere, eskola orduetan ez ezik, aisialdiaz euskaraz gozatzea ere posible dela erakutsi digu aisialdi taldeak egun auzoko gazteria (eta ez hain gazte) osatzen dugun askori. 20 urte hauetan auzoko euskararen egoerak hobera egin duela esan daitekeen arren, oraindik ere hezkuntza formaletik haratago gaztetxoek eskuragarri dituzten aisialdi-eskaintzak gaztelania hutsean ematen dira, Txantxikuko begiraleak diren Olatz Suarez eta Maddi Martinen arabera.



Egoera iraultzeko auzoko Berbaizu Euskara Elkartearen lana aipagarria den arren, “kultura ikuskizunetan, telebista saioetan eta musika eskoletan gaztelaniak aurre handia hartzen dio oraindik ere euskarari” gehitu dute begiraleek.

“Euskararen erabilera euskaraz aisialdiaz gozatzeko eta harekin jolasteko bideak eginez areagotuko dela pentsatzen dut” jarraitzen du Zabaletak astekariko artikuluan. Eta hain zuzen ere, bide horien sorreran daramatza aisialdi taldeak bi hamarkada. Horiek horrela, urte osoko plangintza eskaintzen dio Txantxikuk euskaraz bizitzea posible dela sinesten duen ume, gazte eta guraso orori: tailerrak, txangoak, udalekuak… . Hori da hain zuzen ere, finean taldearen helburua Suarez eta Martin begiraleen arabera: “egun bizi dugun testuinguru zailean euskarak espazio informalen beharra du, bide horretan, Deustualdeko ume zein gazteentzako euskarak dituen arnasguneetako bat gara” diote. Azken 20 urte hauetan, jakina da hezkuntzan milaka aldaketa eman direla. Gazteen aisialdia ere aldatuz doa, eta tamalez, teknologiaren erabileraren hazkundeak umeak indibidualismora, alienaziora eta mendekotasunera bultzatzen ditu. Horri ere aurre egin behar izaten diete gaur egun Txantxikun.





Deustuko Inauteriak.

Herria egiteko tresna

Gurasoek Txantxikun nire izena eman zutenean, astebururo elkartzen ginen ikastolan begiraleek antolatutako tailerrak egiteko. Buztinarekin loreontziren bat egin izan dugu inoiz, eskolan ikasten ez genituen jolasetara jolastu gara edota eskolan ikasitako jolasetara beste era batera jolasten ikasi dugu; alderantzizko ezkutaketa, zapitxo kolektiboa… jolas gutxi batzuetara jolasteko mila modu, azken batean. Eskola orduetan azaltzen ez diren gai asko jorratzeko aukera ere eman du aisialdi taldeak bi hamarkada hauetan, "kolektiboan hausnartzeko eta ume zein gazteen artean nolabaiteko ikuspegi kritikoa garatzeko helburuarekin" azaldu du Suarezek.

Hazi bitartean, gu oraindik umeak ginenean astebururo beharrean hilean behin elkartzen hasi ginen, Miren Luzuriaga begirale ohiak ere aldaketa hori umea zela bizi izan zuen eta azken honen ustez, garai hartan zegoen "indar faltaren" ondorio garbia izan zen gutxiago biltzen hastearena. Ikasturteko asteburu, egun eta arratsalde -pasez gain, auzoan bertan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeari ere berebiziko garrantzia ematen dio aisialdi taldeak eta noski, euskaraz. Hezkuntza formalaren mugak gainditu eta "euskarazko eremu informalak indartzeko lana ere egiten" duelako taldeak, "herria egiteko tresnak ematen eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sustatzen" dituzten bitartean.

Goxoagoak dira zure hitzak euskaraz esaten dituzunean

Joan den maiatzaren 21ean kalera ateratako Euskara Aurrera dinamikaren bultzatzaileek azaldu bezala, "euskarak ez du aurrera egiten, eraman egin behar da". Eta hain zuzen ere, eraman egiteko prestutasun hori ez da faltan sumatu Txantxikuren sorreratik gaur egun arte. 2001ean askatutako hariak belaunaldiz belaunaldi egin du jausi gaur egun arte eta hein handi batean hori begirale eta umeen artean eman den errelebo on bati esker izan dela baieztatzen dute aisialdi taldean ibilitako hainbatek. Baina, zein da hari horretatik tiratzen jarraitzeko gakoa? Bada Miren Luzuriaga begirale ohiaren arabera, "garrantzitsua da saltoa progresiboa izatea, pixkanakakoa. Gaztetxoei protagonismo gehiago emanez adibidez, beraiei ere ekintzak antolatzeko aukera ematen edota bileretara joateko aukera ematen. Gutxinaka, dinamikaren parte izango dira, eta prozesu horretan zehar, errelebo naturalago bat ematen da". Duela hogei urte bezala, gaur egun Txantxikuko begiraleek borondatez


Deustuko Jaiak



egiten dute lan, alabaina, asko da trukean jasotzen dutena. Olatz eta Maddiren ustez, “itzela da” umeengandik jaso eta ikasten dutena eta halaber, elkarrekin sortzen duten giroaren “parekorik ez dagoela” azpimarratu dute.



Hogei urte eta bat ospatu zituzten Txantxikutarrek joan den maiatzaren 14an Done Petri plazan. Hala ere, espero dezagun beste hogei ere ospatzeko gaitasunak zutik jarraitzea, euskara aurrera eramateko prest dauden umeak, datozen belaunaldiei haritik tiratzen jarraitzeko gogoa helaraztea eta noski, Deustualdean eremu ez formaletako aisialdiak hazten jarraitzea.



MAIATZAREN 2TIK 6RA ARTEKO ASTEA, JARDUERAZ BETETAKO ASTEA

Maiatzean bi ekimen nagusi elkartu dira Deustuko Ikastolan; alde batetik, Liburuaren Nazioarteko Egunagatik prestatutako lanen erakusketa eta bestetik, Guraso Elkarteak bideratutako Aste Kulturala.

Testua eta argazkiak: Deustuko Ikastola

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO ERAKUSKETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an ospatzen da 1616ko egun horretan Shakespeare, Cervantes eta Garcilaso de la Vega el Inca hil zirelako. Deustuko Ikastolan 2008an ospatzen hasi ginen. Urte horretan, gurasoek haien txikitako literatura liburuak eraman zituzten Ikastolara eta garai hartako liburuekin alderatuta, oso desberdinak zirela ikusteko aukera izan genuen. Hurrengo urtetik aurrera, gai baten inguruan egindako lanekin erakusketa bat antolatzen hasi ginen. Orain arte jorratutako gai batzuk hauek dira: astronomia, olinpiadak, zirkua, mitologia, artea, giza gorputza, Ikastolaren 50. Urteurrena, Ikastolaren 55. urteurrena, literatura, munduari itzulia 80 egunean, betiko ipuinak... Aurtengo gaia Euskal Kultura Munduan izan da. Horren inguruko ikasleen ekoizpen lanak ikusgai egon dira Ikastolako eskulturadun atarian eta Liburutegiko arduradunarekin talde bakoitzak astean zehar ikusi ahal izan ditu honen azalpenak jasotzen zituen bitartean. Ikastolako webgunean ikusgai egongo dira egindako lanak.





ASTE KULTURALA

2017-2018 ikasturteaz geroztik, Deustuko Ikastolako Guraso Elkarteko ordezkarien batzordeak ikastolarekin koordinatutako Aste Kulturala bultzatu izan du urtero gai bat jorratuz. 2020an eta 2021ean, COVID-19 pandemia egoeragatik, ez da ekimena burutu. Aste honetako programazioa, Liburuaren Nazioarteko Egunagatik prestatzen den erakusketarekin bat etorri da eta ikastetxeko klaustroak bultzatutako jarduerekin eta eskolaz kanpoko beste jarduera batzuekin koordinatu da, baita ikastetxean dauden beste batzordeekin ere: Euskara, Hezkidetza… Aurten,"Euskal Kultura Munduan" lelopean, honako helburuok landu dira:

- Euskal Kultura ikasle guztiei hurbiltzea, alderdi eta adierazpen guztietan.

- Gure errealitatetik eta hemendik kanpo, kultura euskaraz nola bizi eta landu daitekeen erakustea.

- Euskara ikusaraztea, ez bakarrik hizkuntza edo ikasgai gisa, baizik eta kultura transmititzen duen eta bizitzeko nahiz sortzeko aukera ematen duen hizkuntza gisa.

- Kulturen artean bizitzea: Euskal kulturarekin bizi diren beste kultura batzuk ikusaraztea eta elkarren artean hurbiltzea.

Ikastetxeko komunitate osoak parte hartzeko jarduerak burutu dira:

Jon Maia Soria bertsolaria, euskal abeslaria, euskal idazlea, itzultzailea eta dokumentalgilea da. Euskal Filologian lizentziaduna da

txistuman Musikari multiinstrumentista tradizionala: txistulari, Scottish Bagpiper, Albokari... dena nahasten dut nire Loop Station-ekin!

Xabier Madariaga Idirin @XMadariagal **Aita eta kazetaria** @urhanditan & @Boulevardeitb. Father and journalist. Ex Paris, **Madril & Jerusalen. RT + endorsement.**

SOKATIRA MUNDIALA Basque Country Tug of War World Championships 2021
Munduko Sokatira Txapelketa Getxo 2021 ; Txapeldunaren esperientzia: Goizalde Aransolo, Deustuko Ikastolako irakaslea

BIZKAIKO EUSKAL JOKO ETA KIROL FEDERAKUNDEA

Eider Eibar Zugazabeitia (Zornotza, Bizkaia, 1980) ilustratzailea

Herri kirolak Julia Martinez Segoviako emakume harrijasotzailea eta aizkolaria

Euskal dantzak Gure Herria taldearen eskutik

Antzezpena, Ane Meabe Euskal taldeak munduan, txotxongiloak

Eneko Agirrezabal Tellería (Segura, Gipuzkoa, 1986) zientziazko irakaslea eta atleta, 2021ko Behobia-San Sebastian lasterketaren irabazlea Behobia-San Sebastian lasterketaren irabazlea


Pilotariak era raketistak Miamin
ARRAUN TALDEA

Irrien lagunak
Argitxo 5 kontinententan zehar
Aitzol Atutxa Aizkolaria

DEUSTUA 1924KO PLANO BATEAN

Lerro hauekin batera dakargun planoak Deustua erakusten digu 1924an, herri moduan desagertu zen urtean alegia. Hor daude udaletxea, frontoia, Erriberako eskola, Areetako trenbidea eta herriko beste bazter eta eraikin asko.

Testua: Hektor Ortega



Deustua 1924ko plano batean. Bilboko Udal Artxiboa. Bizkiako Foru Agiritegi Historikoa.

Oraingoan 1924ko Deustutik osteratxo bat egiteko gonbitarekin gatoz. Zelakoa zen gure herria deustuarren gogoaren kontra Bilbok beretzat hartu zuenean? Jakina, zer ikusirik ez gaur egun ikusten eta ezagutzen dugunarekin. Baina gaurkoak ere ez dauka antz askorik duela hogei urteko Deustuarekin, are gutxiago duela 40 edo 60 urtekoarekin. Denbora gutxian zeharo aldatu da Deustua eta, Erriberak eta Zorrotzaurrek erakusten diguten bezala, oraindik ere asko dauka aldatzeko.

Plano hau Bilbok Deustua bereganatzeko txosten-sortan dago. Bilboko saneamendu sarea jasotzen du. 1924ko irailean sinatu zuen udal teknikari batek. 1895ean hasitako proiektua zen, Bilboko saneamenduarena. Bilboko urzikinak hodietan barrena Deusturaino eraman behar zituzten eta bertan ponpatu Getxoraino eramateko. Behin han, Galeako labarreko tunel batetik itsasora isuri behar zituzten. Deustuko ponpa-etxe hori planoan ageri den Casa de Máquinas de Zorrozaurre da. Jakina denez,

instalazio horiek, erdi galduta bada ere, gaur egun ere badira. Lur azpian ur-zikinen gordailu erraldoia eraiki zuten, baita haiek ponpatzeko makineria ere. Ur haiei zerien hatsari aurre egiteko, landare aromatikodun lorategia paratu zuten gainaldean. Bitxia da ikustea Elorrietako barik, Zorrotzaurrekotzat jo zutela.

Planoari erreparatzen badiogu, konturatuko gara egon bazegoela Zorrotza aurrean, IMQren ospitale berria ez bezala. Hala ere, Zorrotzaurre izena zehatz erabili nahi badugu, planoan bertan Zorrotza izenaren aurrean dagoen Deustuko aldeari gorde behar diogu. Ponpa-etxe hori, berriz, Elorrietan zegoen. Elorrieta auzo sortu berria zen. XX. mendearen hasieran ibaiaren ibilgua zuzendu zuten Elorrietako errebuelta oso bortitza zelako ontzi handienentzat. Orduan kanalizatu zuten Ibaizabal ezkerralderago, Zorrotzari zati bat kenduta. Eskuinaldean, berriz, mendiaren azpian lur zerrenda bat irabazi zuten. Han jarri zituzten lantegi handiak (Tubos Reunidos, adibidez) eta langileentzako etxeak (Etxe Handia ospetsua, kasu). Hogei urte lehenago etxe bi eta ibaia besterik ez zegoen lekuan, Deustuko auzo handienetako bat hazi zen. Bazegoen, hala ere, Elorrieta baino auzo handiago eta populatuago Deustuan: Erribera. Olabeaga historikoa lantegi, etxe, denda, taberna eta ontziola anabasa zen. Han zeuden, besteak beste, Artiach (1922), Coromina (1923), Bilbao-Goyoaga, Kortadi eta beste asko. Deustuarren erdia (lau mila lagun) alderdi honetan bizi ziren. Planoan nabarmentzen da bertan eskola zegoela, auzoaren tamainaren erakusgarri. Deustuko beste eskola udaletxean zegoen.

Udaletxea eta frontoia

Eta ez dago auzo populatu gehiago. Elexalde, alegia, Done Peri elizaren ingurua, herriaren bihotza zen baina artean ez zeukan, inondik inora, pisu demografiko handirik. Arretaz begiratzen badiogu, ikusiko dugu Plentziako errepidea ardatz hartuta garatu zela, alegia, gaur egungo Ramon y Cajal kalea. Elizatik beherago ikusiko ditugu udaletxea (eskola zeukan alboetan), plaza eta frontoia, gaur egun Agirre lehendakariaren etorbidea ezker-eskuin zeharkatzen duen eremuan. Jakina denez, Deustuko udaletxea 1936-37ko gerran suntsitu zuten. Horrez gain, planoak ez dakar xehetasun gehiegi. Irakaskuntzaren garrantzia islatu zuen,behinik behin. Hor dira Gor-mutuen ikastetxea, La Salle (Nuestra Señora del Rosario), Deustuko unibertsitate biak (katolikoa eta komertziala)... Lantegi handi bat ere badago (Talleres de Deusto), Ibarrekolandako ortusantua eta gaur egun zeharo desagertuta dagoen trenbidea: Bilbo-Areeta. Erdaraz Vega de Deusto izenaren azpian Deustuko baserrialdea (Goierri) irudikatu behar dugu. Hor dira Madariaga, Ibarrekolanda eta Tellaetxe (gaur egungo San Ignazio) aldeko baserriak. Jesus Gaztañaga Deustuko azken udal idazkariak 1925ean idatzi zuen bezala, “Deustuak luzaroan eutsiko dio bere nekazari itxurari, baserri asko dituelako. Egunen baten desagertuko balira, jarraian emango ditugu haien izenak, alegia: Goiri, Bizkoetxe, Aldai...” Ez zuen luzaroan iraun Deustu baserritar horrek baina gure iruditeria kolektiboan betiko gelditu dira baserri horietako izen asko eta haien produktuak: txakolina, tomateak...

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

EZ COLUMBUS, EZ MAO

Premiere diskotekaren irekieraren aurrean, istorio hau soberan ezagutzen dutela diote Deustuko Erriberako eta Zorrotzaurreko auzokideek. Soberan ezagutzen dute zuzenean pairatzen dituztelako diskoteka honek auzoan sortzen dituen hondamendiak. "Ametsgaizto" hau hasi zenetik 25 urte igaro diren honetan "nahikoa dela" aldarrikatu dute berriz ere.

Testua eta argazkiak: Nerea Cubillo Urkizu

1996. urtean zabaldu zuten Columbus izeneko dantzalekua. Baimendutako edukiera gainditzearen ondorioz, 2008. urtean Bilboko Udalak espazioa ixtera behartu zuen. 2012. urtean Mao Mao Beach izatera igaro zen eta azken hau 2018. urtera arte mantendu zen zabalik. Lau urte pasatxo, diskoteka zabaltzearekin batera, auzora itzuli dira gaueko ordu txikietako zaratak, zikinkeria, errepidean gurutzatutako zaborrontziak, baita autoetako ispilu hautsiak ere.

Alabaina, auzo elkartearen ustez ez da gertakari isolatu bat Bilboko Udalak Deustuko Erriberako dantzalekua berriz zabaltzeko baimena eman izana, eta hain zuzen ere, hori salatu zuten maiatzaren 19an Frank Gehry zubian egindako agerraldian: "dantzalekua berriz irekitzearen aurka kontzentratu garen arren, Bilboko Udalak gure auzotik kanporatu nahian hamar urte daramatzala salatu nahi dugu, memoria, ondarea, etxebizitzak eta ingurune soziala suntsitzearen ondorioz. Dena hiri-berroneratzearen izenean, edo, hobeto esanda, diruaren izenean; auzorako hobekuntzak direla esaten diguten arren, badakigu helburua auzoaren balioa handitzea dela, aldi berean, irabazi ekonomikoak ere handitzeko, finean, auzoa goitik behera merkantilizatzeko" azaldu du auzo elkarteak.

Dantzalekuko kanpoaldean gertatzen diren ezbeharrak, bertara doazen gazteei egotzi dizkie espazioko arduradunak bere aldetik, hala eta guztiz ere, auzo elkartearen iritziz, gazteena baino, hiriaren antolaketa arazo bat da: "Kale



2012ko kontzentrazioa, Mao Mao Beach diskoteka aurrean.

MAO BEACH, EZTA PREMIERE ERE



2022ko kontzentrazioa, Frank Gehry zubi parean.

bakarra duen eta 378 auzokide bizi diren auzo batean, Udalak 960 lagunentzako edukiera duen espazio bati zabaltzeko baimena ematen badio, ez da hirigintza eta soziologia ikasi behar herritarrentzako ondorio tamalgarriak aurreikusteko. Nola berritu dakioke lizentzia ezaugarri horiek dituen negozio bati, bizilagunen kopuruaren halako hiru denean dantzalekuaren edukiera?" galdegin diote Udalari.

"Market berritzaileak baino zerbait gehiago behar dugu"

Halaber, kexu dira Zorrotzaurre Planak auzora ekarri dituen proiektu eta jarduerekin, batek ere ez diolako erantzuten auzoko errealitateari, hauen arabera, espazio sortzaile pribatuak, unibertsitate pribatuak eta sorkuntza ekosistemak nagusitu dira azken urteetan auzoan, eta Deustuibarran bizi direnek, ordea, bestelako zerbitzu batzuk behar dituztela aldarrikatu dute "janaria erosteko leku bat, eskolaren bat, osasun zentro bat… . Honaino helduta, "nahikoa da!" diote, eguneroko "eraikuntzako kamioien joan etorriek sortzen duten zarata gutxi ez balitz, orain ere dantzalekura doazen autoen, autobusen eta oinezkoen joan etorrien zaratak entzun behar dituzte gaueko ordu txikietan".

Erresistentzia egongo da

Halaber, apirilaren 29ko gertakarien ostean, Bilboko Udalak ezarritako neurriak nahikoak ez direla azaldu dute eta diskoteka ixtearen erabakian berresten dira: "gaueko hondamendi zaparradaren ostean, goizaldean auzoa garbitzera etortzeak eta hurrengo asteburuan polizia gehiago ekartzeak ez du bizilagunen gogoa baretuko, ez baitu bateraezina den arazoa konpontzen".

Azkenik, 2018. urtean Mao Mao Beach itxi zuten arte, auzo elkarteak gogoratu du ohitura handia zegoela asteburuetan autoak kalean ez aparkatzeko, eta horrez gain, emakumeak batez ere, dantzalekua zabaldu baino lehen etxera heltzeko, nekatuta baitzeuden diskotekara joaten ziren oinezkoekin topo egin eta irainak entzuteaz. Hori dena kontuan hartuta, honako hau adierazi dute auzoko sarreran egindako agerraldian: "ez gaude prest gure autoak astebururo ezkutatzeko, erakundeek espazio publikoari eragindako kalteak ordaintzen jarraitu arren, guk ez ditugu norberari eragindako kalteak berriz ordainduko, eta ez ditugu gauak astebururo esna igaroko Ertzaintzari deitu eta inora ez doazen salaketak jartzeko. Eta batez ere, ez gara berriro, segurtasun ezagatik edo beldurragatik geure etxeetan sartuko. Udalari bertako biztanleak ez zaizkiola axola argi dago. Egoera konpontzea ezinezkoa dela uste duten arren, gure aldetik erresistentzia egongo da".



2022ko kontzentrazioa, Frank Gehry zubi parean.

berbetan

NIKO CUENCA BERISTAINekin

Enpresa Bidea egunkariko koordinatzailea

“Zer eta zergatik gertatu den kontatu

Ekonomian espezializatutako euskarazko komunikabide digital berria jaio da: Enpresa Bidea. Niko Cuenca analista ekonomikoak koordinatzaile gisa dihardu, eta proiektuaren nondik norakoak zein gaurkotasunari lotutako hainbat gako azaldu ditu.



Testua: Maite Txintxurreta Agirregabiria
Argazkiak: Ecuador Etxea

nahi dugu; horixe da gure balio erantsia”

Enpresabidea.eus atariaren sortzaileetako bat zara. Zertan datza?
Harremana daukat hainbat komunikabiderekin, eta esaten nien bazegoela gabezia bat euskaraz informazio ekonomikoari heltzeko orduan. Zergatik jotzen dugu gaztelaniara ekonomiaz aritzeko? Egun batean Pilar Kaltzadak deitu zidan proiektua aurkezteko, eta esan nion kolaboratzeko eta muntatzen laguntzeko prest nengoela.

Totmedia Comunicació taldeak luzaroan jorratu du tokiko hedabideen mundua, eta duela bederatzi urte sortu zuten viaempresa.cat, informazio ekonomikoa eta enpresariala katalanez jorratzeko. Inbidiaz ikusten genituen eta, hala, azkenean sortu genuen Enpresa Bidea SL, egoitza Donostian daukana.

Arrakala hori apurtu nahi dugu, baita ekonomiaz beste modu batean berba egin ere.

Nahiko zenukete Via Empresak bere lurraldean duen erreferentzialtasuna lortzea?
Hori da. Badaude hedabide jeneralistak eta badago ekonomiarenkz.eus egunkari digitala, astean behin albisteak jartzen dituena. Baina ez zegoen egunero gai propioak jorratzen dituenik. Gureak bi atal izango ditu. Batetik, gai propioak, analisiak eta kontu luzeagoak argitaratzeko, 3-4 minutuko irakurketa tartea eskatuko dutenak.

Zer eta zergatik gertatu den kontatu nahi dugu; horixe da gure balio erantsia. Horrez gain, albisteak ere baditugu.

Erreportaje sakonak bateragarriak dira formatu digitalarekin?
Egun, txio bitartez enteratzen gara guztiaz. Badirudi bat-batean denok bihurtu garela mix energetikoaren aditu, bere garaian arrisku sariaren aditu izan ginen bezala. Bada, nahiko genuke tarte bat hartu lasai hausnartu eta irakurtzeko, eta saiatzen gara beti hiruzpalau iturriri galdetzen.

Zazpi lurraldeak hartuko dituzue aintzat.
Bai, euskararen eremua da gurea. Ipar Euskal Herrian pertsona bat izango dugu hango ekonomiaren berri emateko. Nafarroan, lankidetza handitu nahi dugu Euskalerria irratiarekin, hango iritzi emaileak izan… Jakin badakigu gaur-gaurkoz Bizkaia eta Gipuzkoakoak garela nagusiki, baina oreka bilatzen saiatuko gara.

Nori zuzenduta dago Enpresa Bidea? Beharrezkoa da aditua edo enpresa arlokoa izatea?
Ez. Ekonomia modu zabalean ulertzen dugu. Pilar Kaltzadak dioen moduan, ekonomia kendu digute, delegatu egin dugu. Baina gu geu gara eragile ekonomikoak. Ez da gauza bera Amazonen bitartez erostea edo denda

“Egun, txio bitartez enteratzen gara guztiaz. Badirudi bat-batean denok bihurtu garela mix energetikoaren aditu, bere garaian arrisku sariaren aditu izan ginen bezala”

berbetan

NIKO CUENCA BERISTAINekin

▷▷ SAKONEAN



“Kriptodiruaren inguruan ezjakintasuna itzela da, eta iruzur egiteko aukera, handia”

Zergatik enpresagintza ikasketak?


Lehen aukerak kazetaritza, enpresagintza eta euskal filologia ziren, eta denak biltzen dituen proiektu batean amaitu dut. Enpresagintzak aukera ematen du ekonomiaren hainbat ikuspegi izateko. Gerora, ekonomiaz gehiago ikasi dut nire kabuz. Mundua ulertzeko balio du.

Enpresabidearen sorrera urduritasunez bizi izan duzu?

Bai. Kanpotik aztertzetik, start-up bat bertatik bertara ezagutzera. Polita da, jende interesgarria bildu dugu, baina egunero elikatu behar da piztia. Bestalde, lehen Twitterren berrehun eta piku jarraitzaile nituen, eta orain zazpiehun bat. Bertigo puntua ematen du, baina hauspo ona eman digute.

Zer uste duzu kriptodiruaren inguruan?

Batetik, espekulatzeko darabiltzan jendea dago. Arriskutsuak dira, ikusi besterik ez dago. Ezjakintasuna itzela da, eta iruzur egiteko aukera, handia. Aldiz, badago jendea diru asko irabazi duena, ondo jakinda non sartzen ari den. Kriptodibisek baino, blockchain teknologiak irekiko ditu bide berriak, eta harreman moduak aldatu. Euro digitala prestatzen ari dira jada. Kontu kontrolaezinak direla ikusita, gobernuek aurre hartu nahi diete.



batean. Batzuetan badirudi enpresari hitza gaizki ikusia dagoela, baina beti izan gara ekintzaileak, eta langileak ere bai. Errigora, esaterako, ekonomia da. Hori ere aldarrikatzera gatoz. Gero, batzuentzat erosoagoa izango da hemengo ginebrei buruz idatzi duguna irakurtzea eta ez dute begiratuko finantzen “txapa”; beste batek ekonomia feministari buruzko artikulu bat irakurriko du…

Ez da, beraz, finantzetara mugatzen.

Ez. Badauzkagu zehar-lerro batzuk: finantzak, jasangarritasuna, ekintzailetza, trantsizio energetikoa, ekonomia zirkularra… Feminismoa ere bai. Izan ere, ohartu gara arrakala dagoela enpresen eta emakumeen artean. Euskara ere hor dago. IVAPekin eta Euskaltzaindiarekin adostu nahi dugu kontzeptu ekonomikoak nola esan behar diren. Eta gero, Bikain ziurtagiridunak, hau da, euskara planak aplikatu dituzten enpresak.

Ekintzailetza aipatuta, ezagutzen duzu proiektu interesgarririk Deustualdean?

Zinema eskolak, Skate Gunea eta PiuGaz rokodromoa, besteak beste, oso ondo doazen proiektuak dira. Ekintzailetza ez da soilik aplikazio bat muntatzea. Inbertsioak egin behar dira, langileei ordaindu, kudeatu… PiuGazen kasuan, duela hiruzpalau urte etorri zen bikote bat, bata italiarra eta bestea hemengoa. Italian bazeukaten antzeko zerbait, hemen muntatzeko apustua egin zuten, eta asmatu dute.

Ekonomiak herritar arrunten bizitzan duen eraginaren adibide dira argindarraren edota erregaien prezioen igoerak?

Bai. Prezioak ezartzeko sistema oso konplikatua da, askori arrotz suertatzen zaie. Eta ez gara ohartzen Euskal Herria energetikoki oso mendekoa dela. Horren aurrean kontsumitzaile arruntak ezin du gauza handirik egin, baina konponbide oso interesgarriak ari dira garatzen. Kotxe elektrikoa, esaterako, gauez karga daiteke, energia merke dagoenean, eta garbigailua jartzean bateriako energia hori erabili. Sistemak norabide biko sare adimendunak garatzen ari dira, energia hartzeko ez ezik, hornitzeko ere badirenak. Energia behar dugu, eta ez gaude prest horri uko egiteko. Beraz, erabil dezagun hobeto.

Jasangarritasunaren ikuspegitik ez daukagu ezer. Sortu beharko genuke eguzkiplaken bitartez edo haizearen energia aprobetxatuz, eta horretan jarriko dira indarrak. Baina trantsizioa behar dugu, 5-10 urtekoa. Mugatu dute argindarraren prezioa, lortuko dute faktura %30 jaistea, eta ez dago gaizki. Baina Europak esan du litekeena dela neguan murrizketak egotea, baldin eta Errusiatik gas-isuria mozten badute. Hemen jada izan dugu trantsizio bat, 80ko hamarkadan industria astuna desagertu ostekoa. Beraz, jakin izan dugu ereduak aldatzen.

Globalizazioak handirako joera ekarri du komertzio edo proiektu txikien kaltetan?

Nola eragin jakin behar dugu. Azalduz gero ez-dakit-zein plataformaren bitartez erostean zergak Irlandan edo Herbehereetan ordaintzen direla, jakinez gero zer dagoen atzean, agian jendeak birplanteatuko luke. Oso erosoak gara, beraz, goazen gauzak eroso jartzera. Laborek, esaterako, bestelako kontsumitzeko era bat sustatzen du, eta Deustun banatzen ditu bi astean behin otzarak. BonoDenden sistemak ere oso ondo funtzionatu du. Denda txikiek zerbait berezia eskaintzen dute, horregatik jarraitzen dute martxan. Moldatzen jakin behar dugu, eta digitalizazioaren arloan sekulako iraultza dator. Hor dago hiri adimendunen kontua, hiriak nolakoa izan behar duen pentsatzeko datuetan oinarritzen dena.

Norbere hautuekin eragin daiteke neurri batean, beraz.

Dendari familia batetik nator, eta nire bikoteak ere denda bat dauka. Nik badakit zelan erosiko dudan. Baina Bilbon irekitzea multinazional bat, baldin eta soldata duinak baditu eta zergak hemen ordaintzen baditu… Nahiago dut hori eta ez online erostea. Eta hori egonda, jendea joango da eta agian alboko tabernan hartuko du kafea. Datuei erreparatuta, agian ikusiko dugu bestela ez litzatekeela horrenbeste jende ibiliko inguruan.

“Batzuetan badirudi enpresari hitza gaizki ikusia dagoela, baina beti izan gara ekintzaileak, eta langileak ere bai”



KIROLAK

Deustuk 2 bandera irabazi ditu batele-tan

Sailkatze estropadaren ostean, bi bandera eskuratu zituen Deustuko Arraun Taldeak apirilaren 24an Sestaon izandako Euskadiko batelen finalean, emakumezko absolutoen mailan eta gizonezko kadete mailan, hain zuzen. Gizonezko gazteak ordea, laugarren postuan sailkatu ziren garailearekiko 00:20,98 segundoko diferentziarekin. Maiatzaren 15ean izandako Bizkaiko traineru txikien txapelketan ordea, gizonezko gazteen taldeak hirugarren postua eskuratu zuen eta absoluto mailako emakumeek berriz, bigarrena. Orokorrean ikasturte oparoa izan da Deustuko Arraun Taldearentzako. Izan ere, aipatutako garaipenez gain, apirilaren 3an Bizkaiko batelen txapelketan emakumezko senior eta gizonezko kadete mailetako taldeek bandera bana eskuratu zuten.

AISIALDIA

Arangoiti Plaza izeneko dinamika abiatu dute

Auzoan "elkarrekin hitz egiteko guneak" izateko, topaketak egingo dituzte hilabeteko azken ostegunetan Arangoitin. Lehena maiatzaren 19an egin zuten eta ekainekoaren ostean uztailean eta abuztuan geldialditxoa egingo duten arren, asmoa da datorren ikasturtean egitasmoari berriz ekitea. Auzoko jendearen artean komunitate zabala eraiki nahi dute, eta horretarako, elkarguneetan parte hartuko duten auzokideek ere hizlariak eta gaiak proposatzea. Lagunen arteko elkarrizketa baten ondorioz sortutako dinamika txikia da Arangoiti Plaza, azken urteetan nagusitzen ari den bakardadearen hazkundearen aurrean, "elkarrekin auzoko bizitza eraikitzeko" helburua duena.

AISIALDIA

Txepetx Eguna

San Inazioko aisialdi taldeak estreinakoz ospatu du bere eguna. Maiatzaren 14an Ibarrekolanda institutuko jolastokia hartu zuten hamaika haur, begirale, guraso eta auzokidek. Arratsaldeko 16:30ean hasita, herri kirolez, bingo musikatuaz eta disko festaz gozatu ahal izan zuten bertaratu ziren guztiek. Horrez gain, musika, edariak eta jatekoak ez ziren falta izan eta, esan beharrik ez dago, giro paregabea izan zen nagusi arratsalde osoan zehar. Egun horretan bertan zozketa baten berri eman zuten Txepetxeko kideek. Antolatzen dituzten ekintzentzako dirua bildu asmotan, hiru sariko banatuko dituzte boletoak eskuratzen dituztenen artean. Boletoak bi euroan jarri dituzte salgai auzoko hainbat tabernatan, esaterako, Presley-n, Txikian eta Josebar-en. Zenbaki saridunak Eki Egunean emango dituzte jakitera, ekainaren 23an. Horrez gain, haurrentzako sudaderak ere salgai dituzte nahi duenarentzat.








DEUSTO BIZIRIK

Auzoko saltokietan kontsumitzeko deialdia

Maiatzean eta ekainean indarrean egongo den sentsibilizazio kanpaina berri bat abiatu du Deusto Bizirik merkatarien elkarteak. Tokiko merkataritza bultzatzea xede, bi asterik behin 50€ko kontsumo txarteletan banatutako 2000€ zozkatuko dituzte, Deustuko edozein dendatan erabili ahal izateko. Nahikoa izango da Deusto Bizirik elkarteko kideak diren saltokietan kontsumitzea zozketan parte hartzeko. Bestalde, urtero bezala, maiatzaren 12tik 22ra bitartean, Uztartzearen Gastronomia Ibilbidea abiatu dute, hogei bat ostalaritza establezimenduren parte-hartzearekin. 10 egun horietan ibilbidean parte hartu duten lokalek pintxo berezi bat aurkeztu dute ardo egokiarekin batera, uztarketa egokia egiteko.





Urtea: 1940

Txema Luzuriaga

Alejandro 3 zamaontziaren uretaratzea

Alejandro Bengoeche y Cia ontzioletan gerraostean amaitutako lehen zamaontzia izan zen. 1940. urtean uretaratu zen baina hondoa jo eta Deustuko Erriberako trafikoa etenda geratu zen. Bengoeche y Cia ontziola hasiera batean, karga-bagoiak eraikitzen aritu zen gaur egun RENFE dena egiteko. Aurretik, tona askotako bi itsasontzi eraiki zituen eta Alejandro I eta Alejandro II. bezala izendatu zituen. Lehenengoari dagokionez, honako pasarte hau aipatu behar da: itsasontziaren uretaratzea igande goiz bateko lehen orduetan aurreikusita zegoen eta aldi berean, emaitza aurretik jakina zen hauteskunde batzuekin kointziditu zuen. Nahiz eta uretaratzeak ikusmin handia sortu, azkenean ontzi hori ezin izan zuten uretaratu, ontzia erre-pidean iltzatuta geratu baitzen. Euskal Museoaren argazkia erref 1492. Txema Luzuriagaren 2. liburuan (urdina) antzeko irudi bat ageri da 60. orrialdean.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer iruditzen zaizu Bilboko Udalak San Inazion, Ibarrekolandan eta Elorrietan TAO zerbitzua jarri izana?



Maria
Bakio

Bakiotik San Inaziora nator egunero lanera. TAO zerbitzua ezarri baino lehen, arazorik gabe aparkatzen nuen autoa. Orain, 70€ ordaintzen ditut hilean autoa aldameneko garaje batean aparkatzeagatik.



Iñigo
Ibarrekolanda

Ez zait bidezkoa iruditzen eta erabat desados nago egindako berrikuntzarekin. Baina azken finean, espero genuen erabakia hartu da, TAO abian ez zegoen auzo bakarreneta-rikoa zen eta.



Jose Antonio (Beltza)
Ibarrekolanda

Uste dut TAO zerbitzuaz gain beste neurri batzuk ere beharrezkoak direla auzokoak ez diren gidariek autoa San Inazion aparkatu ez dezaten. Orain, nabaritzen da aparkatzeko leku gehiago dagoela eta jendea orokorrean pozik dago. Aldi berean, kezkatzen nau lehen San Inazio inguruan autoa uzten zutenek orain Arangoitira joan izanak.



Amaia
Ibarrekolanda

Hedabideek TAO zerbitzua auzokideek eskatu dutela esan arren, uste dut Udalak diru gehiago ateratzeko aitzakia bat dela.



Amaia
San Inazio

Ez nago ordaintzeko sistemaren alde, baina ikusita zeintzuk diren gainerako auzoetan autoa aparkatzeko baldintzak egia da San Inazion aparkatzeko zailtasun handiak zeudela eta orain badirudi momentuz apur bat hobetu dela.

>> GAZTERIA

BADATOR DEUSTUKO GAZTE EGUNA!

Testua: Deustuko Gazte Eguna

Ekainaren 11n azken urteotan ohitura bihurtu den Gazte Eguna antolatu dugu Deustuko gazteok. Helburua gazteok batzeko eta balore eraldatzaileetan batera disfrutatzeko egun bat antolatzea da. Izan ere, kontziente gara logika neoliberalak indibidualismora, atomizaziora, berekoikerietara, eta, finean, "es lo que hay" gisa definitu daitekeen egoera animiko konstante batera garamatzala. Aspaldi hasi zen euritan gure inguruan, eta ordutik ez du atertu. Urak gora eta gora egin du, uholdeak sortu eta gazteok ia itotzeraino.

Baina… krisi betean hazi eta hezitako belaunaldia gara, eta aspaldi ikasi genuen urpean igerian, aspaldi ikasi genuen mehatxupean igeri egiten: marrazoak baino odolzaleagoak diren bankari eta apustu etxeen artean, olagarroak baino babosoagoak diren eraso matxisten artean, pirañak baino langile-gose gehiago duten eta langileak esplotatzen dituzten "enpresari txikien" artean, gure itsaso garbiak zikintzen dituzten petrolera eta makroferrien artean, arrantzatutako gazteak preso eramaten dituzten bi estaturen artean…

Hala ere, arazoaren dimentsioaz jakitun, harro esan dezakegu urteetan zehar eraiki ditugun arnasguneek inoiz baino gaurkotasun eta potentzialitate handiagoa dutela. Arnasa hartzeko bonbona gisa erabiltzen baitugu gaztetxeak eta jai herrikoiak. Bat-batean ur-jasa erraldoi bat jauzi eta gazteok gai gara elkartasun sareak sortzeko. Eraso matxisten aurrean autodefentsa feminista aldarrikatzeko, lan-erasoen aurrean prekarioen asanbladak antolatzeko, gazteon aisialdia Deustun ere euskaraz eta euskaratik eraikitzeko…

Baina honek guztiak bultzada berri bat behar du, ez baitu berez eta bakarrik aurrera egingo. Deustu maite dugulako da beharrezkoa Deustuko gazteak elkartzea, elkar-ezagutzea, elkarri laguntzea… Horregatik, ekainaren 11n Deustuko Gazte Egunera etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu. Ekainaren 11n Deustuko gazteok plaza batuko dugu, "arrainek itsasoa behar duten bezala behar baitu Deustuk plaza bat" eta egun hau aprobetxatuko dugu Deustu osoa hartzeko: bizikleta martxa bat egiteko, batera gosaltzeko, antzerki batez eta elektrotxaranga batez gozatu ahal izateko, elkarrekin bazkaltzeko, palako finala ikusteko, kuadrilek antolatutako ur-jolasetan parte hartzeko, kontzertuekin parranda egiteko…

Gazteok itota nahi gaituzte… baina ur azpian bizitzen ikasi dugu. Jarrai dezagun egunez egun arnasguneak eraikitzen eta ibilbide horretan elkarrekin gozatzen!







Egunean behin jolasa berrikuntzekin itzuliko da irailean

10. deboraldiari uda ostean emango dio hasiera Egunean Behin jolasak. Izan ere, jokoaren egilea den Codesyntax enpresak pentsatu du "aplikazioak berrikuntza batzuk merezi dituela". Hori dela eta, uda bitartean berrikuntza horietarako tartea hartu eta Android eta iOS bertsioetan indarberrituta itzultzea espero du.

>>AZKUE FUNDAZIOAREN ALBISTEA

Bziber lehiaketaren bosgarren edizioa maiatzaren 13tik ekainaren 9ra bitarte egingo da

Bziber lehiaketa, TikTok sarean oinarritutako euskarazko lehiaketen aitzindaria da. Azkue Fundazioak gazteak eta sareak euskaraz ehuntzeko egindako bi proiektu jarri ditu martxan: Bziber Lantegiak, gazteak sareetan trebatzeko ikastaroak eta Bziber lehiaketa, TikTok sarean euskarazko edukiak sortzea erronken bitartez, baita erreferente euskaldunak indartzea ere.



Lehiaketa honek 5. edizioa beteko du aurten, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren babesarekin. Edizio hau maiatzaren 13tik ekainaren 9ra bitartean egingo da eta lehiaketak iraungo duen 4 aste baino gehiagotan gazteek 4 erronka ezberdin egin beharko dituzte. Urte honetan, gainera, berritasun modura, gazteek modu pribatuan bidali ditzakete erronkak. Edizio berri honetan, Asier Burguete, Go!azen telesailaren protagonistetako bat izango da lehiaketaren aurkezlea eta erronken sortzailea. Berarekin batera beste 6 euskal tiktoker egongo dira Asierrek emandako erronkak egiten, besteak beste, Kai Nakai, Lorea Intxausti, eta Julen Portillo.



>> KOMIKIGINTZA

ZELADORE BANPIRO BATEN GORABEHERAK

Lauzpabost urte eman ditu Txarli Graciak komikigile gisa PREST! aldizkarian. Formatu zaharrean aldizkaria irakurtzen zutenek ziur ez dituztela ahaztu Kuma eta Kerra bere pertsonaiak. Badira urteak Txarli ez dela Deustualdean bizi, baina ez du herritarrekin loturarik galdu. Bere komikien hainbat ale erakusketan erakutsiko ditu Erriberako Karkaba espazioan.

Testua: Lur Mallea

Marrazkiak "txikitatik" egiten ditu Txarli Graciak. "Bizitza osoa" eman du horretan. Horregatik ez da harritzekoa Mendaroko ospitalean zeladore lanean hasi zenean ere komikiak marraztea. Are gehiago, lehen lanegunean bertan Mariola Reigosa lankidea ezagutu zuenean, berau ere zeladorea eta oso komikizalea. Bien artean sortu dute Mirenolatu pertsonaia eta berarengan oinarritutako bi komiki kaleratu dituzte jada. 100 orritik gorakoak biak.

Mirenolatu "zeladore banpiroa da" bere sortzailearen hitzetan. Bere kaparekin hegaz egiten duen horietakoa. "Protagonista marjinatua da, gizartetik kanpo bizi dena, mozkortia eta drogazalea". Baina aldi berean "oso gustuko du ospitaleko gaixoei laguntzea". Mirenolatuk badu, nola ez, aurkaria ere. Señor Josakidetza izeneko pertsonaia. "Gaiztoa" da, nola ez, eta Osakidetza "enpresa moduan irudikatzen du". Txarli eta Mariolaren asmoa "Osakidetzak giza baliabideak kudeatzeko duen modua" kritikatzea da, "umore beltza" erabiliz. "Txiste moduko komiki bat egitea" ondotxo ezagutzen duten errealitatearekin. Izan ere, "zelan egin daitezke hain txarto gauzak", irteten dio barru-barrutik Txarliri Mendaroko ospitaleko eta oro har Osakidetzako kudeaketari buruz ari denean.

Mirenolaturen lehen albumak (*Miren Olatu, la celadora vampira. Living in Josakidetza*, DDT Banaketak, 2020) espero baino arrakasta handiagoa izan zuen. Ale guztiak eskuz esku saldu ziren, eta batik bat, ospitalean bertan lankideen artean. "Horregatik animatu ginen bigarren albuma kaleratzera". Orduan Txarlik, "serioago" jarri, eta "hobekuntzak" egitea erabaki zuen, eta kolore gehiago eta euskara gehiago sartu zituen *Caida y auge de Mirenolatu* albumean (DDT Banaketak, 2021). Komikizaleak Deustuko liburu-dendan aurkituko ditu.

Erakusketa

Erriberako Karkaba espazioan Txarliren ibilbideko hainbat lan ikusteko aukera izango da ekainaren 30etik uztailaren 3ra, auzoko jaiekin batera. Besteak beste, Mirenolaturen bigarren albumeko kapitulu batzuk –Txarliren gustukuenak–, Kuma eta Kerraren marrazkiak edota Ondarroan paratu zuen erakusketarako beren-beregi egindako komikiak. "Leku seinalatua" da Deustuko Erribera Txarlirentzat, bertan 10 urtez bizi izan baitzen, eta ezin du ezkutatu sentitzen duen "ilusioa".



BADATOZ IBARREKOLANDAKO JAIAK!

Maiatzaren 27an hasi eta ekainaren 5era arte luzatuko dira aurtengo Ibarrekolandako jaiak. Bertako jai batzordeak hiru urte eman ditu pandemiaren ondorioz jaiak antolatzeko aukerarik izan gabe. Hori dela eta, aurtengoak gogo handiz ospatuko dituztela azaldu digu batzordeko kidea den Estherrek.

Testua: PREST!

Jaiak hilabetearen azken asteburuan hasiko diren arren, maiatzaren 21ean, larunbata, Ibarrrekolandatik Urkiolarainoko mendi martxa egin zuten goizeko 05:00etan abiatuta. Soberakinak izeneko kuadrillak jai batzordearekin batera antolatutako ekintza izan zen eta 30 lagun inguruk parte hartu zuten.



Estherren ustez, polita da auzoko eragile eta talde ezberdinek jaietan hainbeste parte hartzea. Izan ere, batzordeak antolatzen dituen ekintzez gain, beste ekintza asko aipatutako taldeek eta kuadrillek proposatutakoak dira. Hauetaz gain, aurtengo jaietan ere bada auzoko ekintzaren bat dinamizatzera animatu den norbanakoren bat. Jai egun guztietan artisautza azoka eta herriko produktuen XII. azoka zabalik egongo dira, baita pandemian zehar hainbeste faltan somatu dugun txosna eta kontzertuak. Bi asteburuetan zein astean zehar ere, adin ezberdinetako auzokideei zuzendutako ekintza anitzak egongo dira jai gunean zein jaigunetik gertu. Urteroko bazkari herrikoiez, dantza ekitaldiez eta mus txapelketaz gain, badira berrikuntza gutxi batzuk ere, maiatzaren 28an goizeko 09:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00ak arte luzatuko den BloodBowl txapelketa, besteak beste.

Auzoko txikienentzako ere hainbat jarduera antolatu ditu jai batzordeak. Hala nola jaietako lehen larunbatean haurrentzako aparra egongo da eguerdiko 13:00etan, eta bazkalostean Txurrimuskis kuadrillak antolatutako goitibera tailerra. Horrez gain, txikiek ere dantza egin dezaten, minidiskoa izango da egun berean arratsaldeko 19:00etan jaigunean.

Datozen bi asteetan jai batzordeak antolatutako egitaraua irakurri eta deskargatzeko ondoko QR Kodea eskaneatu dezakezu.





Testua: Ainhoa Maiztegi

UDAKO BIKINI OPERAZIOA EBAZTEN

Dieta kulturak gure sistema soziala menperatu egiten du. Gainera, zaila da burbuila horretan murgilduta gaudela ikustea, norbaitek kontrako ikuspuntua planteatzen ez baitigu.

Urteak aurrera egiten duen heinean, eta pixkanaka honen erdigunera hurbiltzen hasten garenean, jendartean era kontziente, baita kasu askotan, era inkontziente batean gizartearen parte izateko jarduerak aurrera eramaten hasten gara. Horiek, elikadurarekin eta ariketa fisikoarekin harremanetan dauden ekintzak izaten dira maiz. Udako bikini operazioa, adibidez, gero eta lehenago hasten dela sumatu dugu. Izan ere, nahaspila zikliko batean sartu edo bultzatu gaituztela esango nuke: operazioarekin behin hasita, emaitzak lortzen (edo ez) hasi ondoren, emaitza horiek ikusteari uzten diogu, eta berriro ere abian jartzen da prozesua. Era honetan, urte osoa emaitza fisiko horiek lortu nahian ematen dugula dirudi. Baina, zeren kontura? Pentsatu ahal dugu noizbait, zein den benetan bilatzen edo lortu nahi dugun helburua? Galdera hauen erantzuna entzutea gogorra da, eta hitz batean laburbildu genezake: giza-onarpena. Bai, gure gorputzean bikinia janzteko baimena besteon eskutan utzi dugu. Onarpen sozialak, gure autoestimua kaltetu eta gure gorputz eta arimaren konexioa hautsi egiten du. Aurretik aipatu bezala, egoera hau, gainera, askotan era inkontziente eta ez zuzen batean gertatzen da. Beraz, ez zara gizarte honen parte izatearen errudun. Baina bai, zure eta hurbileko lagunen ardura da egoera honi buelta ematea. Eta noski; besteon gorputzen gain ipinitako hitz, iruzkin edota aipamenak alde batera uztea. Ez dugu inoren onespena behar gure gorputza harrotasunez eta konfiantzaz erakusteko. Bestalde, urteko sasoi berotsuenak ez dira mesfidantza sortu beharreko aldiak. Zure burua, edo inguruko norbaitena holako egoera batean identifikatzen baduzu: egon lasai, sistema honen baitan dauden sinesmenekin ere bukatzeko botera daukagu.

barkua bete herba



Gorputz ezberdina daukaten pertsonen artean (normatiboa eta ez norbatiboa, alegia); gorputz bati zerbait egiteko besteari baino eskubide gehiago ematen dizkiogunean (hondartzan bere bikini gustokoena janztea, adibidez), agerian jartzen ari gara gorputz jerarkia dela defendatzen dugun gizartearen oinarria. Horren parte izan nahi duzu?

Ainhoa Maiztegi
@ainhoamaiztegi.nutricion

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...





ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa





DAFNE GONZALEZ VILLAR
Emakumea eta sortzailea

Gure arteak balio du

Non daude gazteen ahotsak arteari dagokionez? Behar besteko balioa ematen zaie, edo gure iritziak edo gure ekarpenek gutxiago balio dute? Zer espazio okupatzen dugu edo okupatzen uzten digute? Zer baliabide edo laguntza ditugu gure obra aurkezteko orduan?

Hauek dira gazte askok artera hurbildu eta ekarpenak egiteko, edo partekatzeko egiten ditugun galderetako batzuk. Gazteen obrek egungo gizartea zalantzan jartzen dute etengabe. “Benetan hau idatzi duzu?” edo betiko partenalismo tonuarekin “nagusiagoa zarenean gauza itzelak egingo dituzu”. Orain gauza itzelak egiteko momentua izango ez balitz bezala.

Askotan, obra plastiko bat, antzezlan bat, poema-liburu bat, abesti bat eta abar aurkezteak gastu ekonomiko handiak dakartza, eta ez hori bakarrik, ahalegin emozional handia ere badago, eta horri gehitu behar diogu gazte izateagatik baztertuak izateko beldurra. Gaztea eta artista izateak, eta emakumea bazara are zailago, egindako lanak merezi duela erakusteko beharra dakar espazio ugaritan. Horregatik, artista gazteen arteko sareak ehuntzea beharrezkoa da gure bizitzetan; izan ere, onarpen ezak higatu eta mindu egiten du, eta, askotan, larrienera garamatza, gure obrak balio ez duela eta gu, artista garen aldetik, nahikoak ez garela pentsatzera.

Hori dela eta, artisten arteko sareak sortzearen alde egiten dut beti. Sortzen jarraitzeko espazioak partekatzeko eta, nola ez, artista gisa hazteko. Gure proiektuek balio dutelako, eta gu nahikoak garelako. Jarrai dezagun artea sortzen. Inork ezin diezagula sortzeko gogoa kendu, jarrai dezagun sortzen, inork gure lana eta gure eskuek egin dezaketen guztia zalantzan jarri gabe.



ELENA KASHLINOVA
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Eguna pasa nekean eta

Nik euskaraz tutik ez nekien,
ta patuaren indarraz
bertso saioan amaitu nuen
nahiz ta izan kanpotarra.
Orain dakit bertakoa zeba
den burugogor samarra,
bertsolaritza kirola baita
lantzeko buru-giharra.

Euskaraz lardaskatzen dut, baina
jakitetik oso urrun.
Ustekabean bertso eskolan
onartua naute Deustun.
Astearteek argia dute,
nahiz kalea egon ilun.
Kideen laguntzak berotzen nau
sentitu nadin euskaldun.

Bilbon euskaraz



www.bilbaoeuskaraz.eus

Mostrarnos ante EUROPAk ikus gaitzan

Sani-Ibarrekolanda-Deustu

iluminaremos el monte

URKULUmendira goaz

ibilbide erraza **20min** ruta fácil

BUS y alojamiento fin de semana
Bus eta asteburupasa egiteko aukera

GURE ESKU

gureeskudagodeustu@gmail.com

ged.sanibaelo@gmail.com

Miren Agur Meabek eta **Gastonek** egindako

“Hostopostoak eta ilargi-jaia”

ipuina eskuratu nahi duzu?



Gure **familia-programa**n edo
LH1, LH2 edo LH3ko ikasleentzako **eskola-programa**n
parte hartuz gero, doan jasoko duzue.

*5 euroren truke ere eskura daiteke Euskararen Etxean

Informazio gehiago:
www.euskararenetxea.eus

Euskararen Etxea

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral